

# Eisnerin



ARITZ GALARRAGA

**D**okumental –ez bereziki gomendagarri– bat estreinatu dutelako, *Dear Werner*, jakin dut izen bereko Herzog zine-magileak bidaia bat egin zuela 1974ko neguan, Munichetik Parisera, oinez. Eta bidaia horren joan-etorriak jaso zituela *Vom Gehen im Eis* liburuan (Izotz gainean ibiltzeaz). Werner Herzogi beste liburu bat ezagutzen nion bakarrik, *Eroberung des Nutzlosen* (Alferrikakoaren konkista), Koldo Almandozek gomendatuta, *Fitzcarraldo* pelikularen filmaketa gorabeheratsua egunero moduko bat dena. Gera gaitezen, ordea, aipatu dokumental –ez bereziki gomendagarri– hori motibatu duenarekin.

Neguan, Munichetik Parisera, oinez. Zergatik, baina? Bada, lagun bat, Lotte Eisner, *Eisnerin*, hiltzorian zegoelako. Eta bera zegoen lekutik hura zetzan lekura oinez joanda, lagunak bizirik segiko lukeela fermuki sinesten zuelako. Berokia, iparrorratza, zakuto minimo bat hartu, eta hogeita bi egunez ibili, euri, kaz-kabar, elurpean; sarri maparik gabe ere, esnea eta mandarinak oinarritzko elikagai, lo egiteko leiho bat hautsi eta, ale, barrura. Ibiltariaren atzetik goaz gu, Pello Lizarralderen liburuetan barrera bezala, deskribapen puntillistik, detaile bakarreko esaldiak, esaldi bakarreko pasarteak, batoren atzetik hurrengoak. “Inoiz sekula aurretik ez nuen hainbesteko bakardaderik sentitu”. Eta zalantza konstante bat: Eisnerin, nola egongo da? Bizirik jarraituko al du? Aski azkar ari ote naiz aurrera egiten?

Azkenerako, bidaiaren kontakizuna baino, ez ote zaidan interresgarriago egin bidaia martxan jarri duen zioa: hiltzear dagoen laguna bisitatzea. Eta nik norengatik egingo nukeen baino, otu zait nork egingo lukeen nigatik bidaia hori –ez dezala inork inoiz egin, otoi, oso umore txarrez jartzen bainaiz gaixotzean, gizakia-zen zaurgarritasuna onartu nahiko ez banu bezala–. Asko lasaitu naiz gaur egunean halakoak bideo-dei baten bitartez konponzen direla pentsatu dudanean. ●

EUKALIPTUAREN LANDAKETEN  
KUDEAKETARI DAGOKIONEZ...



...AZTERKETA SAKONAK ETA  
PLANGINTZA ERAGINKORRAK  
ABIAN JARRIKO DITUGU...



...BASOAREN USTIAKETA ETA NATU-  
RAREN ARTEKO OREKA BLA BLA...



ADUR

## “MUGIMENDU FEMINISTA VS. KOLEKTIBO TRANSEXUALA GATAZKA EZ DA ERREALA”

### EDURNE LH, TRANS LEGEAREN ALDE GOSE GREBAN

Trans Legeak Espainiako Kongresuan bidea egin dezan, 70 aktibista transexual baino gehiago gose greban dira Kongresuaren atarian. Legearen kontrako jarrera “zoritxarrez mugimendu feministaren sektore batzuetatik loratu da, baina argi dugu mugimendu feministaren gehiengoa gurekin dagoela. Adibide bat: trans legearen aldeko manifestua, aste bakarrean, Estatuko mugimendu feministan dabilzan 600 kolektibok baino gehiagok eta 11.000 lagunek baino gehiagok sinatu dute. Guk feminismo inklusiboan sinesten dugu”. **ARGIA.EUS (2021/03/11)**

